



La  Salle



*Toki xume askotan jende xume askok
gauza xume asko eginez, mundua alda dezake.*

URTEKO TXOSTENA 2018

AURKIBIDEA

	Orrialdeak
1- Patronatu Junta: urteko bilerak	3
2- Delegatuen bilerak	3
3- Urteko kanpaina: Garapen eta Sentsibilizazio kanpaina	3
4- Garapen hezkuntzako beste jarduerak	5
5- Sustatu triptikoa	16
6- Tandanacui Taldeak	17
7- Udako boluntariotza: "Jende Xumea" Taldeak	17
8- Udako boluntariotza: Helduak	18
9- Txosten ekonomikoa	20
10- Garapenerako Lankidetzaren Proiektuak	21
11- Erantzukizun sozio-korporatiboa	25
12- Eragin politikoa	25
13- Beste GGKEekiko harremanak	25

1. PATRONATU JUNTA; URTEKO BILERAK

Patronatu Junta pertsona hauek osatzen dute:

- Jose Roman Perez, Presidente
- Jose Manuel Agirrezabalaga, Presidenteorde
- Alfredo Bueno, Diruzain
- Idoia Azpilicueta, Idazkari
- Jose Angel Mugica, Batzordekide
- Jose Antonio Blanco, Batzordekide

Urtean zehar Juntak hiru bilera egin zituen Proegaren Egoitzan. Landutako gai garrantzitsuenak honako hauek izan ziren:

- Martxoaren 22ko bileran: 2017ko kontuen baieospena, Jende Xumea boluntariotzako Plan berrikusiaren aurkezpena, 2018-2019 Sentsibilizazio-kanpaina.
- Ekainaren 11ko bileran: 2017-2018 ikasturtearen ebaluazioaren aurkezpena, Memoria 2017 eta Sustatu 23aren aurkezpena, 2018 udako boluntariotzari buruzko informazioa, 2017-2018 ikasturteko egutegia, Maria Angeles Larrearen herentziaren kudeaketa.
- Abenduaren 14ko bileran: 2019ko aurrekontuaren baieospena, 2018ko Garapen Proiektuen kudeaketa, Proyde-Proega Fundazioa La Salle Hezkuntza Sarean integratzearen baieospena, 2019 urteko jarduera-plana, Langile kontratuen berregituraketa.

2. DELAGATUEN BILERAK

Urtean hiru aldiz bildu ziren Delegatuak Proegaren Egoitzan. Gipuzkoakoak bertaratuz eta Bizkaikoek bideokonferentziaz hartu zuten parte. Proegako kudeaketa taldetik Jose Manuel Agirrezabalaga eta Idoia Azpilicueta egon ziren. Hara landutako gai garrantzitsuenak:

- Urtarrilaren 15eko bileran: Ordezkaritzetan ikasturteko 1.go hiruhilekoan egin ziren jarduera aipagarrienak partekatu ziren eta 2. hiruhilekoan egitekotan zituztenak, Kudeaketa taldeak, bere aldetik, informazio hauek eman zituen, besteak beste: 2018ko aurrekontuak, 2017ko garapen proiektuak eta 2018ko udako boluntariotza-proiektuak.
- Martxoaren 5eko bileran: Ordezkaritzetako 2. eta 3. hiruhileko aurreikuspenak: kanpainak, ekintzak..., Kudeaketa taldearen informazioak: Bidezko Merkataritzaren Web orria, Sentsibilizaziorako diru-laguntzak, Jende Xumearen plan berritua.
- Urriaren 1eko bileran: 2018-2019 ikasturteko plana aztertu zen eta azpimarratzeak egin, Kudeaketa taldeak bere aldetik eta Ordezkaritzek bestetik lehenatasunezko jarduerak aurkeztu zituzten

3. URTEKO KANPAINA: GARAPEN ETA SENTSIBILIZAZIO KANPAINA: *“Egiazko zoriona ez da diruz erosten. Erabili zure denbora libreza merezi duenerako”.*

Urtero, Proyde-Proegak sentsibilizazio kanpaina bat sustatzen du. Kanpainako orientabidea eta materialak “Salletar GGKEen koordinakundearen” (Proyde, Proyde-Proega, Proide, Edificando eta Proideba) eta Sed, Proclade-Yanapay eta Proclade Fundazio GGKEen arteko Prestaketa Taldeak

eginak dira. Kanpaina hau tokian tokiko Ordezkaritzetan egiten da, batik bat, Euskadiko Salletar ikastetxe eta zentroetan txertaturik dauden Ordezkaritzetan, alegia.

Hara gure giza multzoari, ikastetxe eta hezkuntza erakundeetako ikasle eta erabiltzaileen kopuruari, buruzko datuak:

IKASTETXEAK	UDALERRIAK	IKASLE KOPURUAK
La Salle Berrozpe	Andoain	1302
La Salle San José	Beasain	719
La Salle	Bilbo	1300
La Salle	Donostia	972
La Salle San Luis	Donostia	378
La Salle Isasi	Eibar	515
Nuestra Señora de Azitain	Eibar	336
Irungo La Salle	Irun	1264
Begoñako Andra Mari	Sestao	739
La Salle San José	Zarautz	699
La Salle Legazpi	Zumarraga	641
GUZTIRA IKASLEAK		8865
GIZARTE-HEKUNTZAZKO OBRAK	UDALERRIAK	ERABILTZAILEAK
Elkarbanatuz	Bilbo	1727
Artizar	Sestao	74
EGOITZAK		
La Salle Unibertsitarioak	Donostia	96
GUZTIRA ERABILTZAILEAK		1897
GUZTIRA		10762

La Salle zentroyen kokapena:



Kanpainan, ikasleekin, irakasleekin eta gurasoekin erabiltzen ditugu Prestaketa Talde horrek egindako material didaktikoak, Proegak euskarara itzuli eta egokitutakoak.

Ikasturteko kanpainaren goiburu motibagarria hau izan zen: *“Egiazko zoriona ez da diruz erosten. Erabili zure denbora librea merezi duenerako. Kontsumitzeko gure moduak egoera zaurgarrian dauden pertsoneri eragiten die”*.

Azken urteotan egin ditugun kanpainetan, gure kontsumo-erabakien ondorioz milioika pertsonaren eskubideak urratzen dira. Azken urte honetan gogoratu dugu gure denbora librea bizitzeko eta hartaz gozatzeko beste modu batzuk badirela, errespetutik, solidaritaterik, bizikidetzatik eta naturaren zaintzatik datozenak.

Gure aisialdiaren kontsumoak uste dugun kostua baino handiagoa duela jabetu arazi nahi izan dugu. Gure denbora librea benetan librea ote den planteatu dugu. Gogoeta egin dugu aisialdia eta garapenaren artean dagoen erlazioaz, abiaduraren gurtzaren inguruan, punta-puntakoa edukitzearen obsesioaz eta low cost-aren ondorioez.

Goiburu motibagarriak –*“Egiazko zoriona ez da diruz erosten”*– gidatu du gogoeta guztia, kontsumismoari alternatibak planteatzera iritsiz. Bizimodu apalagoan bizitzera gonbidatu ditugu gure hezkuntza-elkarteak, kontsumoaren inguruan mugatzen ez diren esperientziez gozatzera.

Ondorio praktikoa esapide honetan laburbiltzen da: *“Erabili zure denbora librea merezi duenerako. Zuk zeuk irabaziko duzu, eta planetak eta guztiok irabaziko dugu”*.

4. GARAPEN HEZKUNTZAKO BESTE JARDUERAK

4.1 San Asensio. Jende Xumea taldeen topaketa (2018ko urtarrilak 3)



San Asensioko Haritzetan egin zen topaketa 2018ko urtarrilaren 3an. Parte hartu zuten iazko udan proiektutan ibili ziren Jende Xumeako taldeak –Eibar-Zarauzko taldeak, 10 lagun (Bolivian), eta Donostiako taldeak 12 lagun (Argentinan)– eta aurtengo udan joango diren bi taldeak: Bilboko taldea eta Zaragozakoa.

Egunaren antolaketa honako hau izan zen:

- 1.go zatia: Elkarren ezagutza (Donostiako taldeak dinamizatu zuten)
- 2. zatia: Zentzuaz galdezka: Bokazio gaiaren inguruan (Mikel Garciak eta Jose Angel Mugicak dinamizatu zuten)
- Bazkari partekatua

- 3. zatia: Elkarri entzunez eta partekatuz.
 - Egon zirenek hitz egin zuten, beraien esperientzia kontatuz (Zarautz-Eibar eta Donostia)
 - Joango direnek hitz egin zuten, beraien proiektua partekatuz (Zaragoza eta Bilbo)
- 4. zatia: La Salle gara eta ospatu egiten dugu: "Izarraren" dinamika eta Ospakizuna (Fireworks) (Mikel Garciak eta Jose Angel Mugicak dinamizatu zuten).



4.2 La Salle Bilbo. Justizia eta Bakea (2018ko urtarrila)

Urtero bezala, Bakearen kanpaina ospatu zuten urtarrilaren azken asteetan eta geletan ekintza bereziak antolatu ziren. Bakearen egunean, urtarrilaren 30ean, Haur eta Lehen Hezkuntzakoak kiroldegian bildu ziren bakearen aldeko otoitza egiteko (familiak gonbidatuak izan ziren).

Horrez gain, ikasmilaka justizia esperientzia bat antolatu zen:



- 1. maila : Baloreen zuhaitza. Zuhaitz bat eraiki zuten kartulinez eta baloreez bete.
- 2. maila: Orri-markatzaile batzuk egin zituzten azoka solidarioan saltzeko Proyde-Proegaren proiekturako dirua biltzeko asmoz.



- 3-4. maila: Bolaluma solidarioa. Ikasleek bolaluma batzuk apaindu zituzten eta Boliviako proiektura bidali.
- 5. maila: Janari bilketa elikagaien bankurako.
- 6. maila: Inspira Proiektua Deustuko Unibertsitatearekin lan egin zuten genero desberdintasunak ikasketetan saihesteko.
- 6. maila: Salle-Chef proiektuan, haiek prestatutako pintxoak solidario bihurtu zituzten eta diru bilketa Proyde-Proegarako izan zen.



- DBH 2: Alboan Elkartarekin Mugetatik Haratago proiektuan parte hartu zuten. Bi egun pasa zituzten Loiolako Santutegian etorkinen egoeraz ikasten eta bizi izaten.



4.3 San Luis Donostia. Proyde-Proegaren kanpaina (2018ko martxoak 5-9)

Goizetan, ikasleekin gogoeta bereziak egin zituzten; erlijio+tutoretza saioetan ekintza bereziak eta Fratelli proiektuari buruzko informazioa landu zuten.

Hamaiketako eta merienda solidarioak egin ziren aurreko astean eta Proega astean bertan azoka solidarioa. Tandanacui taldeak egin zituen kartelak, azoka solidarioa jarri eta bertarako pultsera eta beste hainbat gauza egin ...

Ikasleek izandako parte hartzea oso ona izan zen eta baita gurasoena ere.





4.4 La Salle Donostia. Proyde-Proegaren kanpaina (2018ko martxoak 12-17)

Proyde-Proegaren kanpainan honako jarduerak egin ziren ikastetxean, besteak beste: Goiz hasieran sentsibilizaziorako gogoetak, bizkotxo solidarioaren salmenta jolas garai guztietan eta 16:30etan gurasoei, Fratelli proiektuari buruzko ikerketa saioak, bazkari solidarioa martxoaren 17an, egun berean Bidezko merkataritzaren postua, eta diru-ekarpenetarako gutun-azalen banaketa eta aurrerago geletan jasotzea. Jarduera guztiek erantzun oso positiboa izan zuten.



4.5 Beasain. Proega kanpaina. (2018ko apirilak 16-20)

Jarduera asko egin ziren aste honetan zehar ikasleekin eta gurasoekin. Ikasgai ezberdinetan aurtengo lema landu zen, triptikoaren eta kartelaren laguntzaz, Goizeko Gogoeta gaiari buruz egin

zen egunero, aste honetako ostegunean “Bizkotxo solidarioa” eta astean zehar Fratelli proiektua sustatzeko diru laguntza antolatu zen. Eta maiatzaren 25ean Ikasketa Kooperatiboa Programaren barruan (SEIN Programa), DBH 3. mailako talde batek prestatutako Lasterketa solidarioa egin zen Fratelli proiektuaren alde .



4.6 Donostia. Lotu zaitez justiziaren alde (2018ko maiatzak 4)

“Lotu zaitez Justiziaren alde” lemapean, Caritas, Confer, Justizia eta Bakea, Manos Unidas eta Redes (Proyde-Proega Redes-eko kidea da) erakundeek azpimarratu genuen pertsona pobretuenekin nazioarteko solidaritateak eta lankidetzak gaur egun duen garrantzia. Horregatik, bultzatu nahi dugu nazioarteko lankidetzak, bazterketa eta desberdintasuna jasaten duten biktimekiko elkarrekotasun eta gupidan oinarritzen dena. Erdigunetzat pertsona pobreenak hartzen dira, horretarako tokian tokiko elkartei laguntasuna eta senidetasuna eskainiz.

Otoitz Topaketa maiatzaren 4an egin zen, ostirala, arratsaldeko 7:30ean, Donostiako Bidebieta auzoko Xabierko san Frantziskoren parrokan.

4.7 La Salle Bilbo. Lasterketa solidarioa (2018ko maiatzaren 6an)

Maiatzaren 6an IV. Lasterketa solidarioa egin zuten, auzotik barrena nagusientzat eta ikastetxeko jolastokietan umeentzat. Egun ederra, benetan, eta auzoan ere Proyde/Proega ezagutzeko aukera ona. Ikastetxean bertan ere, kirol-sailaren bitartez, AMPAkoiei eta boluntario askori esker motibazio handiz.

650ren bat pertsonak hartu zuen parte ekintza honetan eta 2.446 euro jaso zituzten. Beste eskola eta kirol taldeak gonbidatu zituzten beraiekin parte hartzera: La Salle Sestao, Maristak, Erandioko Atletismo taldea, ...




Egun berean, bidezko merkataritza salmenta gunea jarri zuten eta bokata solidarioak ere saldu zituzten Jende Xumea taldekoek.

Ekintza hau aurrera ateratzeko laguntza ekonomiko batzuk izan zituzten. Erakunde laguntzaileak ondorengo hauek: Gastronomía Vasca, EDP, BM, Presley taberna, eta Laboral Kutxa, Deustu Bizirik elkarteak, ...

4.8 Zumarraga. Antzerki solidarioa (2018ko apirilak 27)

Urtero bezala, La Salle Legazpi ikastetxeko Arco-Iris Antzerki Taldeak apirilaren 27an estreinatu zuen “¿Y quién nos manda hacer teatro?” Komedia bat da non kontatzen den nola afizionatu talde batek azken entsegua egiten duen estrainaldia hasi baino bi ordu lehenago urte osoan prestatzen ibili den obra. Michael Frayn-em “Aurretik eta atzetik” obraren egokitzapen bat da.

Zelai Arizti aretoan bi emanaldi egin zituzten. Lehenengoa 19:00etan eta bigarrena 22:00etan. Eta aurrekoetan bezala ekimen solidario bat izan zen eta jasotakoa FRATELLI proiektuaren alde.



4.9 La Salle Eibar. Bidezko Merkataritzaren aldeko Ikastetxea (2018ko maiatzak 18)

Joan zen maiatzaren 18an Eibarko La Salle Ikastetxeak Bidezko Merkataritzaren aldeko Ikastetxea Ziurtagiria jaso zuen.

Ekitaldia La Salle-Isasin egin zen arratsaldeko 5etan, honako programa honen arabera:

1. Eibarko Proyde-Proegaren delegatuak, Joseba Agirrezabalagak (Azitain) eta Maria Mardarasek (Isasi) ongi etorria eskaini zien bertaratuei eta ikastetxean egiten den lanaren nondik norakoa azaldu zuten.

2. Anai Jose Manuelek, Proyde-Proega Fundazioaren

presidenteordeak, Kontsumo Arduratsu eta Bidezko Merkataritzaren inguruko bideo aurkeztu zuen. Proegak egindako bideoa da, gazte eta helduentzat euskaraz, Eibarko Udalaren diru-laguntzaz baliatuz. (<https://youtu.be/luZvNZb6ZXo>)

3. Idoia Azpilicuetak, Fundazioaren idazkariak ekitaldia bere testuinguruan jarri zuen, hots, jasotako diru-laguntzari esker azken bi ikasturte hauetan egiten ari diren ekimenen testuinguruan.

4. Idoia Sarasquetak, Eibarko udaleko Zerbitzu Sozialetako zinegotziak, Ikastetxea eta Proyde-Proega zoriondu egin zituen Garapen Hezkuntzaren eremuan egiten ari diren jarduerak guztiengatik.

5. Valentina Andaloni-k, Madrileko Proyde Asoziazioan Bidezko Merkataritzaren arduradunak, ziurtagiria eman zion La Salle Ikastetxeko Zuzendariari Bidezko Merkataritzaren inguruan Ikastetxeak egiten duen lana aitortuz eta zorionak emanez.

6. Ikastetxeko Zuzendariak, Arrate Armendiak, ekitaldira etorritako guztiei eskerrak eman zizkien Ikastetxe gisa



hartutako konpromisoengatik eta animatu zituen aurrera egiten jarraitzera.

7. Bertaratutako guztiek Bidezko Merkataritzako produktuekin prestatutako luncha partekatu zuten.

4.10 Galdakaoko Eguzkibegi Ikastola. Bidezko Merkataritzaren aldeko Ikastetxea (2018ko ekainak 8)

Ekainaren 8an Idoia Azpilicueta, Proyde-Proega Fundazioko Idazkaria, Galdakaoko Eguzkibegi Ikastolan izan zen Bidezko Merkataritzaren aldeko Ikastetxea izendapen-diploma emateko. Madrilera Valentina Andaloni ordezkatu zuen, ekitaldia euskara hutsez egin nahi zuten-eta. Diploma eman aurretik zoriondu zituen, ikastola gisa Bidezko Merkataritzaren baitan sartzegatik eta Merkataritza mota hau bultzatzeko gogoia izateagatik. Galdakaoko Eguzkibegi Ikastola ziurtagiri hau jasotzen duen Euskadiko hirugarren ikastetxea da, Zarautz eta Eibarko La Salle Ikastetxeen ondoren.

4.11 Andoain. FRATELLI proiektua (2018ko ekainak 16)

Ekainaren 16an, larunbatean, Andoaingo FIAREk antolatutako FERIA ALTERNATIBAN La Salle Berrozpek parte hartu zuen, ikasturte honetan PROYDE-PROEGA mailan bultzatzen ari diren proiektua aurkeztuz, FRATELLI proiektua alegia. Andoaingo Udalak 7000€ eman ditu proiekturako, eta LSB famili mailan 2000,€ pasatxo bildu dira.

Bide batez, bidezko merkataritzako produktu batzuk ere eskaini zituzten.



4.12 Udako boluntarioen bidalketa ospakizuna (2018ko ekainak 8)



Gipuzkoako sei boluntarioen bidalketa Donostiako La Salle Ikastetxean egin genuen ekainaren 8an, arratsaldean. Uda hasieran joango dira bi proiektuetara: hiru Abijango Akwaba Etxera eta beste hiru Jujuy-ra, Argentinan. Akwabara Anai Jesus Mari Arrieta, Periko Alkain eta Xabier Matarranz joango dira, eta Jujuy-ra Nerea Bereciartua, Rocio Jimenez eta Jon Aztiria.

Proyde-Proegako lagun-talde polit bat bildu ginen haien inguruan, Gipuzkoako herri ezberdinetatik etorriak: Andoain, Beasain, Donostia, Eibar, Irun, Zarautz eta Zumarratik.

Ospakizunaren hasieran boluntarioak beren kabuz ez doazela azpimarratu nahi izan zen, baizik bidaliak direla, guk guztiok bidaliak eta guk ordezkatzeko ditugun guztiok bidaliak: Proyde-Proega, La Salle eta beraien familiek eta lagunak bidaliak. Herrialde pobretuetan gure konpromiso solidarioaren lekuko ere izango dira nolabait.

Izarraren inguruan planteatu zen ospakizuna, erreferentziatzat hartuz begiak, bihotza eta eskuak.

Lehenengo sinboloa, begia. Pantailan proiektatu ziren Akwaba, Trinidad (Bolivia) eta Jujuy-ko (Argentina) azken urteotako argazkiak. Eta isilune baten ondoren otoitz baten bitartez Jainkoaren eskuetan jarri genituen gure ahuldadeak eta eralda gaitzala eskatu. Bi boluntarioek izarraren inguruan jarri zuten lurrean zegoen begia.

Bigarren sinboloa bihotza izan zen. Boluntariotza errepikatzen zuten bost boluntarioek bizi izandako gertaeraren bat kontatu ziguten. Deigarriak denak. Eta bi boluntarioek bihotza lurretik jaso eta izarraren inguruan jarri zuten.

Hirugarrena, eskuak. Ebanjelioko Lk 9, 1-6 testua entzun genuen, Jesusek misiora hamabiak bidali zituenekoa. Jesusen agindua azpimarratu zen: biderako ezer ez hartzeko, ez makilarik, ez zakutorik, ez egorik, ez dirurik. Boluntarioaren ekarpen nagusia herrialde pobretuetan euren presentzia da, zerbitzu apala eta hitz xumea. Gonbidatuak izan ginen geure konpromisoa idaztera eskuren batean, hitz gutxitan. Eta hiru eskuak ere izarraren inguruan jarriak izan ziren.

Ondoren, bidalketaren zeinutzat, Anai Jose Manuel Agirrezabalagak, Proyde-Proegako boluntariotzaren arduradunak izarra zeraman zintzilikario bat eman zion boluntario bakoitzari.

Topaketarekin jarraitu genuen bidezko merkataritzako jaki batzuk dastatuz eta gure artean ohizkoak ditugunekin ere.



4.13 Mundu zabala, errealitate anitz, Donostia (2018 ekainak 5)

Proyde-Proegak parte hartu zuen Euskadiko GGKEen Koordinakundeak kudeatutako 16. "Mundu zabala, errealitate anitz" jardunaldiaren antolaketan.

Ekitaldia 18:30ean hasi zen Bretxan non jarduera ezberdinak egin ziren, hala nola erakusketak, Bidezko Merkataritzaren postuak, jolas kooperatiboak, triki kalejira, animazioa, malabarismoak, kaleko zinemaldirako sarreren banaketa.

Beranduago, 21:30ean Zuloaga Plazan Oihulari Klown taldeak animazio antzeztu eta dibertigarri bat eskaini zuen, jendeari esertzera gonbidatuz. Eguzkia ezkutatu ondoren eta plazako argiak erabat itzali



zirenean, Ilargi azpian, mundu zabala, errealitate anitz izenburupean, Vestida de novia film sarituaren proiektioa zian zen. Euriak zenbait etenaldi eragin arren jardunaldiari amaiera eman ahal izan genion.

4.14 Irun. Bakearen eguna (2018ko irailak 22)

Irungo udaleko Gizarte Ongizate, Hezkuntza eta Gazteria Arloak irailaren 22 larunbatean antolatu zuen Bakearen eta Boluntariotzaren Eguna, hamalagarren aldiz, oraingo honetan Urdanibia Plazan. 17:00etatik 20:00etara izan zen.

Iruren lanean dihardugun GGKEak ezagutzera eman genuen egiten dugun lana. Proegak, hain zuzen, ezagutzera eman zuen Iruren Garapenerako Hezkuntzari buruz egiten duguna eta aurrera daramatzagun proiektuak Irungo udalari eta herritarrei esker.

4.15 Hondarribia elkarlanean, Hondarribia (2018ko irailak 30)



Hondarribian Elkarlanean
2018 - IRAILAK 30, Igandea

ESKUALDEAN LAN EGITEN DUTEN GKE ETA ELKARTEEI LAGUNTZEKO INFORMAZIO ETA HAUSNARTZE JARDUNALDIA

Jornada Informativa y de Concienciación para la Colaboración y Voluntariado en ONGs y Asociaciones que trabajan en la Comarca

ERAKUSKETA: GOIZEAN, BUTRON PASEALEKUAN 11:00 - 14:30

ANTOLATZAILEA: HONDARRIBIKO UDALA

PARTEARTZAILEAK:

Logo grid including: HAZKUSI JAITI, Geratze Gorria, ADENGI, aecc, BEGISAIE, ATZEGI, GAUTENA, AFAG, PRZ, behar Ouboko, KULTURANDEA, elan osakidi, Emgredas, WomenPower, and others.

Irailaren 30ean "Hondarribia elkarlanean 2018" jardunaldian parte hartu zuen Proyde-Proegak. Butron Pasealekuan egin zen, Txingudi badiara begira. Asmoa, Bidasoa eskualdean gizarte eta lankidetzaren mailan dihardugun erakundeek, lankidetzaren eta boluntariotzaren arloetan eskaintzen ditugun ahalbideen berri ematea izan zen.

Proyde Proegak argazki erakusketa baten bidez hartu zuen parte, azkenengo urte hauetan Hondarribiko udalaren diru-laguntzei esker egindako lana azalduz. Eta partekatuz gure lankidetzaren proiektuetan eta boluntariotzaren dugun esperientzia.

Eta gainera, aukera eskaini genien jolas kooperatiboetan parte hartzeko guregana hurbiltzen ziren haurrei eta helduei ere.

4.16 Beasain. XVII. Boluntarioen Eguna, (2018ko urriak 6)

Joan zen urriaren 6an Proegak parte hartu zuen Beasaingo XVII. Boluntarioen Egunean, Beasain inguruan diharduten beste erakundeekin batera. Gure GGKEak jolas kooperatiboetan parte hartzeko aukera eskaini zuen. Jolas hauen animatzaile Beasaingo La Salle Ikastetxeko aisialdiko Izartxo taldeko begiraleak izan ziren.



4.17 Zarautz. Azoka solidarioa (2018ko urriak 6)



Proegak parte hartzen du Zarauzko Solidaritate Koordinadoran. Koordinadorak joan zen urriaren 6an Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Zarauzko 5. Azoka antolatu zuen. Eta Zarauzko Proegako boluntarioak Bidezko Merkataritzako produktuak salgai jartzeaz arduratu ziren.

4.18 ColorfulFridayDonostia (2018ko azaroak 23)



Alternatiba beltzari: kontsumo arduratsu eta koloreduna, Donostiako Bidezko Merkataritzaren proposamen bat.

Azaroaren 23an ospatu genuen #ColorfulFridayDonostia, Donostiako Loiola kalean zehar, 17:00etatik 20:00ak arte. Ekitaldi honek beltzaren ordezkorea eman nahi izan zuen eta beroa eman jardueraz betea egon baitzen. Donostiako Bidezko Merkataritza taldeak, non Proyde-Proegak parte hartzen duen, kalera atera zituen ohiko merkataritza eta kontsumo amorratuaren eta egun hauetako kolore beltzaren kontrako balizko alternatiba batzuk eta ibiltariak gonbidatu egin zituen norberaren kontsumoari buruz gogoeta egitera.

Kolorez betetako ekimena izan zen, zeinetan giro atsegingarria gozatu ahal izan zen, Donostiako La Salle eta Jesuiten ikastetxeetako gazte boluntario-talde batek eta Clowns-ek animatua ostiral arratsaldeko momentu ezberdinetan. Gainera bazen gune bat Bidezko Merkataritzaren produktu ezberdinen informazioa eta orientazioa emateko: kosmetika, artisautza eta elikadura. Halaber, #ColorfulFridayDonostia standera hurbildu zirenen artean txapelketa bat egin zen, gure Photcall-en argazki barregarri bat atera zuten eta sare sozialetara igo zuten.



4.19 Serigrafia tailerra Eibar eta Zarauzko La Salle ikastetxeetan (2018ko azaroa)

Eibar eta Zarautzen Bidezko Merkataritzaren aldeko Ikastetxe ziurtagiria lortzeko egindako lanari jarraipena emanez eta bi udaletatik jasotako diru-laguntzari esker, azaroan zehar sentsibilizazio lana egin genuen diseinuko ikasleekin kotoi ekologiko telazko poltsetan eta Bidezko Merkataritzakoetan serigrafiatu den irudia lortu arte.

Horretarako, bi ikastetxeetan serigrafiako tailer bana egin zen ikastetxe hauetako Izartxoko begiraleekin eta Jende Xumeako gazteekin, nahiz eta parte hartu izan zuten beste ikastetxeetakoek ere. Tailer hauek Errenteriako Kromosoma Tailerreko langileek eman zituzten. Eta arrakasta handiz.

Ondoren, poltsen pintaketa-tailerra egin zen bi ikastetxeetako Izartxoko neska-mutilekin.

Hemendik aurrera Bidezko Merkataritzako produktuen salmentan Eibarren eta Zarautzen poltsa hauek erabiliko dira (bai ikastetxean baita www.bidezkomerkataritza.proyde-proega.org web orriaren bitartez ere), helburu izanik plastikozko poltsak alde batera uztea eta telazkoak berrerabiltzea.



4.20 Sestao. Elikagaien Bankua “Operación Kilo” (2018ko abenduak 1)

Tandanacui taldearekin lan egiteko proposatutako jarduera izan zen eta Bizkaiko Elikagaien Bankua bitarteko izanik.

Bestaldetik, Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleek elikagaien bilketa proiektuan parte hartu zuten. Ikastetxean jaso ziren elikagaiak eta ondoren San Pedro Konferentziari eman zitzaizkion, gabonetako otar solidarioak prestatzeko. Ikasleek kartel informatiboak egin zituzten eta ikastetxe osoan banatu, kanpaina ikasgelaz ikasgela azalduz, 4 urtetakoen geletatik hasi, Lehen Hezkuntzako eta DBHko ikasgeletan. Kanpaina bukatu ondoren, ikasgeletako elikagaiak jaso eta San Pedro Konferentziara eraman zituzten (Konferentzian azaldu zitzaizen nola funtzionatzen duen jasotako elikagaien banaketa-sareak).



4.21 Zarautz. Jai solidarioa (2018ko abenduak 15)

Aurreko urtetako ohiturari jarraituz abenduaren 15ean Jai solidarioa ospatu zuten Zarauzko La Sallen. Bi ordu iraun zuen topaketan aukera izan zuten parte-hartzaileek txistorra jan, zerbait edan, Tandanacui-koen bitxien denda bisitatu, gabon kantak entzun eta eskulan tailer ezberdinetan parte hartzeko.

Gainera, Gabonetako gozokien bilketa ere egin zuten (turroiak, mazapanak, bonboiak...), ez dutenek ere izan ditzaten horrelako gozokiak.

Beste aldetik, eta Emaus Fundazioarekin koordinatuz, DBH 3. mailako ikasleek larunbat honetan eman zuten bukatutzat aurreko astean zehar egindako arropa-bilketa. Erabilgarri den arropa salgai jarriko da Emausen bigarren eskuko dendetan eta gainontzekoa trapu moduan birziklatuko da.



5. SUSTATU TRIPTIKOA

Martxoan argitaratu zen Sustatu triptikoaren 23. zk, euskaraz eta gaztelaniaz. Ale gutxi batzuk bakarrik inprimatu genituen, hizkuntza bakoitzean. Izan ere, bidalketa Gipuzkoa eta Bizkaiko La Salle Ikastetxeetako familiei eta Fundazioko boluntario, lankide eta partaideei web orriaren bitartez egiten da.

Triptikoan finantzaturako proiektuen taula ageri da eta urteko ekonomi txostena. Zenbait garapen-proiektuen informazioa ematen da eta udako boluntarioritza-proiektuena ere bai, nola "Jende Xume"

gazte taldeena hala pertsona helduena. 2016-2017ko sentsibilizazio kanpainaren berri ematen da eta Bidezko Merkataritzarena ere. Gainera, bazkide egin edo ekarpen bat egiteko bolante bat ere badakar.

Triptikoa urteko txostenaren (memoriaren) laburpen bat da. Bere xedea da gure GGKEaren bitartez egiten diren Garapenerako Lankidetzaren proiektu eta jarduerak ezagutzera ematea La Salle Ikastetxeetako ikasleen familiei eta Proyde-Proega Fundazioaren partaide eta adiskideei, eta horrela herrialde pobretuez sentsibilizatzea.

6. TANDANACUI TALDEAK

La Salle Ikastetxeetako 14-20 urte bitarteko gazteek osatzen dituzte talde hauek. Bi astean behin edo elkartzen dira Garapenerako Lankidetzaren inguruko gaien gainean gogoeta egin eta jarduera ugariak burutzeko. Hezkuntza elkarteen sentsibilizazioan jarduten dute, horretarako kanpaina solidarioetan parte hartuz, informazio panelak jarriz eta ekitaldi solidarioak burutuz, hala nola, merkatu solidarioa, bidezko merkataritzako produktuen salmenta, bizkotxo solidarioaren eguna edo Elikagaien Bankuen laguntza.

Tandanacui taldeak jardunean dira Donostiako La Sallen eta San Luis La Sallen, Eibarren, Bilbon, Sestaon eta Zarautzen.

7. UDAKO BOLUNTARIOTZA: "JENDE XUMEA" TALDEAK

Zaragozako boluntario taldea, 8 gaztez osatua, euren 2 laguntzaileekin (Anai Carmelo Oteo eta Clara Mostalac), Cordobako **Malvinas Argentinas**-en (Argentina) izan ziren, La Salleko Anaien elkartean eta eskolan; eta **Bilboko** 14 gaztez osatutako taldea, euren 3 laguntzaileekin (Sara Fernández, Alba Sasía y Marisol De La Riva), **Santa Cruz de la Sierra**-n (Bolivia), Umezurtzen Zentroko Anaien elkartean.

Toki bietan aurrera eramán zituzten jarduerak hezkuntza izaerakoak izan ziren, batik bat, neska-mutilekin eta gazteekin. Malvinas-en Hector Valdivieso Salletar eskolan, ikasgelako jardueretan nahiz aisialdian, baita auzoko gazteekin ere. Santa Cruz-en berriz, Umezurtzen Zentroko nerabeekin partekatu zituzten ordu asko: ikasketetan lagundu zieten, inprimategiko lanetako momentuetan eta aisialdiko uneetan. Beren lankidetzaren ere eskaini zuten "Plataforma Solidaria" izeneko proiektuan errekurtsio gabeko neska-mutileen aldeko jardueretan. Proiektu hau hiritik kanpo aldeko eraztunetako batean dago kokaturik.

Boluntario gazteak hunkiturik itzuli ziren ikusi eta bizi izandakoagatik, marjinaziozko egoeretara izan zuten hurbilketengatik eta haien aldetik jasotako begikotasun eta gertutasunagatik. Adierazi izan dute sentitu eta bizi izandakoa hitzekin esan daitekeena baino guztiz handiagoa dela. Esaten dute euren bizitzako atal hau ez dela hemen ixten, alderantziz, ireki besterik ez dela egin. Bizipen honek, hango lekuak eta bertako jendeek, beti izango dute tokitxo bat euren bihotzetan.



8. UDAKO BOLUNTARIOTZA: HELDUAK

Aurreko udan 9 boluntario helduk hartu zuten parte, hiruska, hiru proiektuetan: Akwaba Etxean, Abidjan (Boli Kosta), Jujuy-n (Argentina, iparraldea) eta Trinidad-Benin (Bolivia).

Haien ekarpen esanguratsuena euren presentziarekin loturik dago, neska-mutilekin egotearekin edota gazteekin, eskolan nahiz aisialdian, eta beraien hezitzaileekin, edota beste zenbait pertsona helduekin.

Zenbait tokitan bertako Anaien Elkartearen bizitza partekatu dute. Bestetan aldizkako topaketak izan dituzte kartzelako presoekin eta adin txikiko zentroetako gazteekin. Beti onartuak eta errekonozituak sentitu dira.

Boluntarioek balioztatzen dute pobrezia eta zaugarritasun munduarekin izandako topaketa, toki haietako jendearen bizimodu eta balioak. Aberasturik ikusi dute beren burua eta beste era batera bizitzera bultzaturik sentitzen dira, xumeago eta solidaritate handiagoz bizitzera.

Hara hemen proiektuen eta parte-hartzaileen zerrenda:

1. BOLIKOSTA. Abijan. Akwaba Etxea.
(Iraupena: 4 astebete, uztaila)

Xabier Matarranz
Anai Jesus Mari Arrieta
Periko Alkain

Beasain La Salle
Beasain La Salle
Donostia La Salle

2. BOLIVIA. Trinidad-Beni. La Salle Ikastetxea.
(Iraupena: 5 astebete, uztaila-abuztua)



Elvira Villodas
Gurutz Bideguren
Ruben Sancho

Bilbo
Bilbo La Salle
Zaragoza Santo Angel

3. ARGENTINA. Jujuy.
(Iraupena: 5 astebete, uztaila-abuztua)


Jon Aztiria
Nerea Bereciartua
Rocio Jimenez

Zumarraga La Salle
Zarautz La Salle
Errenteria




9. TXOSTEN EKONOMIKOA


FUNTSEN BANAKETA JATORRIAREN ARABERA




ERREKURTSO PROPIOEN JATORRIA



GASTUEN BANAKETA



FINANTZATUTAKO PROIEKTUEN BANAKETA GEOGRAFIKOA



10. GARAPENERAKO LANKIDETZA PROIEKTUAK

Hara, 2018 urtean Proyde-Proega Fundazioak aurrera eramán dituen lankidetzaproiektuak. Askok diru-laguntza publikoak jaso dituzte, besteak diru-laguntza pribatuekin eta Proyde-Proega Fundazioaren beraren funtsekin finantzatu dira.

IZENBURUA	HERRIALDEA	Diru-laguntza eman duen Erakundea	Jasotako laguntza	Proyde-Proegaren ekarpena	GUZTIRA
1. Guatemalako herri-eskoletan nesken haurduntza goiztiarraren prebentziorako hezkuntza-proposamena: bigarren hezkuntzako oinarrizko ziklora proposamena zabaltzea (3. fasea).	Guatemala	Bizkaiko Foru Aldundia (2018)	108.824,00	9.618,00	118.442,00
2. Bigarren Hezkuntzako Ikastetxearen Eraikuntza Handitzea Malvinas Argentinas – Cordoba. (2. fasea).	Argentina	Eibarko Udala (2018)	64.000,00	14.800,00	78.800,00
3. Guatemalako maya-q'eqchi's emakume nekazarien ahalduzte ekonomiko eta politikoa.	Guatemala	Gipuzkoako Foru Aldundia (2018)	54.996,00	2.625,00	57.621,00
4. Guatemalako herri-eskoletan nesken haurduntza goiztiarraren prebentziorako hezkuntza-proposamena: gehienbat populazio indigena duten bi departamentutara proposamena zabaltzea (2. fasea).	Guatemala	Bizkaiko Foru Aldundia (2016) (2. bidalketa)	55.196,00		55.196,00
5. Haurrentzako kalitatezko oinarrizko hezkuntza bermatzea Rumbek-en.	Hego Sudan	Andoingo Ud. (2018)	11.000,00		30.800,00
		Zarauzko Udala (2018)	12.600,00		
		Zumarragako Ud (2018)	7.200,00		
6. Fratelli Proiektuari ekarpenak	Libano			20.140,00	20.140,00
7. Libanon errefuxiatutako siriar eta irakiar gazteen hezkuntza beharretarako laguntza.	Libano	Bizkaiko Caritas	20.000,00		20.000,00
8. Fratelli Proiektua	Libano	Andoingo Ud. (2017)	7.000,00		12.300,00
		Hondarribiko Ud (2017)	5.300,00		
9. Kiri-ko lehen mailako eskolaren hezkuntza kalitateari laguntza edateko ura ahalbideratuz.	Burkina Faso	Imaz Fundazioa	12.000,00		12.000,00
10. Populazioa baztertuetako La Salle ikastetxeetako ikasleen sarbidea alfabetizazio zientifikoan.	Argentina eta Paraguay	Eibarko Udala (2016)	11.601,00		11.601,00
11. Libanoko hego eta erdialdean errefuxiatutako familia siriar eta irakiarren oinarrizko beharrei laguntza	Libano	Irungo Udala (2017)	11.160,00		11.160,00
12. Togo iparraldeko haurrentzako hezkuntza-programa	Togo	Irungo Udala (2018)	9.550,00		9.550,00
13. Pildestiko Lanbide Eskola	Errumania			5.000,00	5.000,00
14. Garapenerako Hezkuntza: Bidezko Merkataritzako Ikastetxeak.		Eibarko Udala (2017)	4.770,00		4.770,00
15. Akassato	Benin	(2016)	4.653,00		4.653,00
16. Kaleko haurrentzako Akwaba Etxea	Boli Kosta			4.000,00	4.000,00
17. Garapenerako Hezkuntza: Sentsibilizazioa		Zarauzko Udala (2018)	1.528,00		1.528,00
18. Garapenerako Hezkuntza: Sentsibilizazioa		Eibarko Udala (2018)	1.528,00		1.528,00
19. Babes-laguntzak Badanya, 2018				1.500,00	1.500,00
GUZTIRA			401.906,00	57.683,00	460.589,00

Hara hemen proiektu batzuen aipamen laburra:

1. eta 4. Guatemalako herri-eskoletan nesken haurduntza goiztiarraren prebentziorako hezkuntza-proposamena: bigarren hezkuntzako oinarriko ziklora proposamena zabaltzea (3. fasea eta 2. fasearen 2. bidalketa)

Proiektu honekin Guatemalako emakumeen sexu- eta ugalketa-eskubideak defendatu nahi dira, bereziki neska eta nerabeenak. Haurduntza goiztiarraren prebentzioarekin jarraitu nahi da hezkuntza-programa baten sorketa, garapena eta gauzatzea zabalduz.

Lehenengo bi faseak lehen hezkuntzako ikasleengana zuzendu ziren. Oraingo hau, bigarren hezkuntzako lehenengo urtera iristen da. Proposatu diren jarduerak diseinu metodologiko bat burutu dute bigarren hezkuntzako hiru ikasturtetan aurre egiteko haurduntza goiztiarraren prebentziora; lehenengo urterako hezkuntza modulu bat prestatu eta banatu da; programa aurrera eraman ahal izateko irakasleen prestakuntza ahalbideratu da, ikasgelarako laguntasun pedagogikoa eskaini da eta gurasoekin lan egin. Prozesu hau txertaturik dago Nerabeen Haurduntzaren Prebentzioaren Plan Nazionalan (PLANEA), Hezkuntza Ministerioaren San Marcos Departamenduko Zuzendaritzarekiko koordinazioan.

Bizkaiko Foru Aldundia proiektu honekin konprometiturik da 2016 urtetik hona.

2. Bigarren Hezkuntzako Ikastetxearen Eraikuntza Handitzea Malvinas Argentinas – Cordoban, 2. fasea

La Salleko Anaiak 2002 urtean hasi ziren lanean Malvinas Argentinas herrian; Argentina Errepublikako Cordoba Probintzian dago kokaturik. Une hartan, 2001eko krisialdiaren ondoren, premia handikoa zen gizarteko sektore zaugarrienei kalitatezko hezkuntza-proposamena eskaintzea. Proposamena aberastu zen pedagogia kritikoetatik abiatuz, bereziki hezkuntza popularretik. Honek elkarte identitatea sendotzen laguntzen baitu eta lotura sozialak ezartzen, honela pertsona kritikoak prestatuz gizarte-begirada dutenak.

Urte batzuetako lanaren ondoren, bigarren mailako hezkuntza-eraikin bat jasotzen ari dira elektromekanika eta elikagai-industria espezialitateak eskainiz, bat etorri zonaldeak eskaintzen dituen lan-aukerek. Proiektu honek lau ikasgela, irakasleen gelak, administrazio / zuzendaritza eremua eta bainu-gelak eraikitzen lagunduko du, Eibarko Udalarari esker.

Urtez urte finkatzen doan hezkuntza proposamen honekin baliabideak eman nahi zaizkie bizi-ibilbide egokiak izan ditzaten pobrezia eskaintzen dizkien arriskuak ekidinez, sustantzi eta legez kanpoko jarduera problematikoekin lotura dutenak, alegia. Era berez arreta eduki nahi da eskolan jarraitzea eta euren formazioa zalantzatia izan ditzaketen neska, nerabe eta gazteen egoerekin.

3. Guatemalako maya-q'eqchi's emakume nekazarien ahalduntze ekonomiko eta politikoa.

Guatemalako emakume indigena gehienak pobrezian eta baztertuta bizi dira, bereziki nekazari eremuetakoak. Reina Zonaldea, Quiché departamenduan, Estatuaren presentzia txikienetakoa duen eskualdea da; populazioa bere Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen etengabeko urratze-egoeran bizi da, bereziki emakumeak. Hauek ez dute esku-hartzerik erabakiak hartzen diren guneeetan.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza duen proiektu honek ahaldu nahi ditu eskualdeko nekazari elkarteetako 100 emakume eta 20 gizonezko, produkzio agroekologikorako prestatuz, Campo-ko Eskola Agroekologikoaren bitartez eta formazio politikoa emanaz Lurraldearen Kudeaketarako Formazio Eskolan. Ekimen biak, jada beste elkarteetan PRODESSAK bultzatuak (tokiko partaidea), praktikara zuzenduak dira, nola ekimen produktibo agroekologikoak aurrera eramaterakoan hala udal-gobernuan eragin politikoa izan dezaketen prozesuen garapenean.



5. Haurrentzako kalitatezko oinarrizko hezkuntza bermatzea Rumbek-en (Hego Sudan)

Western Lake estatuan aurkitzen da Rumbek. 2013 urtean hasi zen gerrak ikastetxe batzuk suntsitu egin zituen. Arazo honi aurre egiteko Loretoko Ahizpek lehen mailako eskola jada izanik, bigarren mailako ikastetxea eraiki zuten neskentzat. Orain mutilentzat egin nahi den ikastetxe



berriarekin nerabeentzako eskaintza hobea egotz nahi da La Salleren eskutik, Loretoko Ahizpekin elkarlanean.

Aniztasun handiko populazioa da, etnia ezberdin ugari, 20 tribu baino gehiagotakoak. Berdintasunezko sarbidea ziurtatuko da proposatutako jardueretan, diskriminatu dezakeen inolako irizpiderik erabili gabe, etnia izan nahiz arraza edo erlijioa, tokiko populazioaren aniztasuna errespetatuz eta kultur dimentsioa suspertuz formazio-prozesuetan.

Proiektu honek, konkretuki, Rumbek-eko Bigarren Hezkuntzako ikastetxe berriari bi putzu eta ura punpatzeko sistema bat ezartzea du xede, eskola horren eraikuntzaren lehengo fasearen barnean. Halaber, kalitatezko hezkuntza emateko gai izango diren irakasleak prestatzea. Barnetegi txiki bat ere izango du. Horretarako Andoain, Zarautz eta Zumarragako udalen diru-laguntza jaso du.

6, 7, 8 y 11. Fratelli Proiekturako ekarpenak

Salletar eta Maristen kongregazioek 2016. urtean jarri zuten abian gizarte-hezkuntzazko proiektu hau Libanon, gerratik ihes egin eta arrisku larrietan aurkitzen ziren siriar eta irakiar haur, gazte eta emakume errefuxiatuen alde.

Programa garatzen jarraitzen du komunitate siriarra eta irakiarra kokatuta dauden lekuetan. Lehena Libanoko hegoaldeko eskualdean, Rmeileh-n.



Komunitate irakiarra Beirut hiriburutik iparraldera dauden auzoetan Bourj Hammoud auzoan.

Proegak sentsibilizazio eta diru-laguntzak jasotzeko kanpainak egiten jarraitu du Euskal Herriko La Salle ikastetxeetan eta bere bazkideen artean. Bizkaiko Caritasen lankidetzara ere jaso du eta diru-laguntzak ere lortu ditu zenbait udaletatik, hala nola, Irun, Andoain eta Hondarribitik.

9 Kiri-ko lehen mailako eskolaren hezkuntza kalitateari laguntza edateko ura ahalbideratuz (Burkina Faso)

Kiri herrixkako lehen hezkuntzako eskola, Bobo Dioulasso-n (Burkina Faso) jasotzen ari diren eskola bat da. Hiru ikasgela eta 255 ikasleekin hasi zen, edateko urik gabe ordea. Ura egunero



ekarri behar izan dute 1m³ depositu batean kilometro eta erdira dagoen iturri batetik hartuz.

Ikasleen kopurua handitzen joango da datozen urteetan, Lehen Hezkuntzako ikasgela berriak ireki ahala.

Proiektu honek bere baitan ditu edateko ura lortzeko zulaketa, eguzki-ponpaketa sistema baten instalazioa, 20 m³ko ur depositua eta udateko uraren hornikuntzarako kanalizazioa.

Imaz Fundazioari esker izango dute edateko ura Kiri-ko eskolan.

10. Populazioa baztertuetako La Salle ikastetxeetako ikasleen sarbidea alfabetizazio zientifikoan (Argentina eta Paraguai)

Orain bi urte abian jarri zen programa honek La Salle Fundazioak Argentina eta Paraguai bere hezkuntza zentroetan bazterketa sozialaren arriskuan aurkitzen diren gazte zaugarrien sustapen integralerako bultzatzen duen programa bati laguntzen dio.

Eibarko udalaren diru-laguntzari esker, herrialde hauetako populazio baztertuetako 5 eskoletako Natur Zientzietako (Biologia eta Kimika) laborategien ekipamendu eta hornikuntzari amaiera eman zaio eta, halaber, eskola horietako Zuzendaritza-kideen eta irakasleen natur zientzien arloko formazioari.



12. Togo iparraldeko haurrentzako hezkuntza-programa

Irungo udalaren finantzaketari esker jarraitzen dugu proiektu honekin. Proiektu honek arazo larri bati aurre egin nahi dio: Sabanak Eskualdeko (Les Savannes) hezkuntza-errekurtsoen eskasiari, bereziki, eskola instalazioen faltari.

Oraingo honetan gure jarduerak bere gain hartuko du:

Eskola langaien banaketa eta errekurtso ekonomiko eskasagoak dituztenei diru-laguntza.

Altzarien hobekuntza eta instalazioen konponketa.

Oinarrizko elikadurak lortzea eta beraien banaketa sareko eskoletan.

Eskoletako kantinen funtzionamendua.

11. ERANTZUKIZUN SOZIO-KORPORATIBOA (ESK)

Proyde-Proega Fundazioak garapen global solidarioak eskatzen duen lankidetzaren ekonomikorako ildo serio eta eraginkorra eskaintzen die enpresa eta erakundeei. Proiektuak finantzatzeak egiazko globalizazioa burutzen lagundu egiten du, garapen solidarioaren bitartez.

Proyde-Proegari laguntzen jarraitzen dioten enpresa gehienek anonimatuan segitzea eskatzen dute.

12. ERAGIN POLITIKOA

Azken urte honetan esku hartu dugu gutxi garatutako lurraldeen pobrezia eragiten duten egiturak aldatzeko egiten diren ekitaldietan, bai Euskadin bai Estatu mailan. Lan hau partaide garen koordinakundeetako batzordeen bitartez egin ohi dugu. Azpimarratzekoa Proyde-Proegaren partaidetza Euskadiko GGKEen Koordinakundeak antolatzen duen Jardunaldian: “Mundu zabala, errealitate anitz” programan.

2018an “Janaria ez da bota behar” kanpainan hasitako ikastetxeetako elikagaien hondakinen neurketarekin jarraitu dugu Gipuzkoako La Salle Ikastetxeetan eta Mariaren Lagundikoetan. Lankidetzaren akordio bat sinatu dugu Madrileko Unibertsitate Politeknikoko Elikagai Katedrarekin, beraiek ere helburu berdineko ikerketa bat abian baitzuten. Lankidetzazko akordio honen baitan Proyde-Proega Fundazioak bere gain hartu du, Ausolanekin lankidetzan, datuak jasotzearen koordinazioa.

“Lotu zaitez justiziaren alde” taldean integratutako “Planeta zaindu pobrezia aurka egiteko” REDESen kanpainan parte hartu dugu. Gipuzkoako lan-taldea koordinatu dugu.

13. BESTE GGKE-EKIKO HARREMANAK

Proyde-Proega Fundazioak solidaritate-sare hauetan hartzen du parte:

- ✓ ARLEPeko (Espainia eta Portugal) salletar GGKEen koordinaziorako batzordean.
- ✓ RELEMeko (Europa, Ekialde Hurbila eta Egipto-Sudan) salletar GGKEen koordinaziorako batzordean.
- ✓ Euskadiko GGKEen Koordinakundeetan.

- ✓ REDES izeneko sarearen Koordinakundean (Garapen Solidariarako Erakundeen Sarea), bereziki Gipuzkoan.
- ✓ Lankidetzeta eta Garapenerako zenbait udal plataformetan (Donostia – Eibar – Zarautz).
- ✓ Euskadiko Pobrezia Zeron.
- ✓ Donostiako Bidezko Merkataritzaren Koordinakundean.
- ✓ Lankidetzeta-hitzarmenak eginak ditu zenbait asoziazio eta GGKEekin (Proyde, Elkarbanatuz, Gipuzkoako Caritas, Bizkaiko Caritas).